

**ANJEL MARI OIARTZABAL
MENDIZALE, IBILTARI, ERROMES, PELEGRIN...**

Ibiltze hutsa ez da posible. Ibilera bakoitzak bere nondik norakoa du eta gainera bitartean gertatzen diren gorabehera, arazo, oztopo eta bizipenak ugari. Anjel Mari ibiltaria dugu, mendizalea, erromesa, pelegrina. Eta auskalo beste zenbat bideren ibiltari. Eta bizitza ibilbide bat baldin bada, Anjel Marik ibilbide hau etapa askotan zatitu du, zentzurik literalenean. Eta bere ibilbide horien hainbeste zentzu, gorabehera, ikusmira, anekdota eta esperientzien jakin-mina sortu zaigu. Eta hori dela eta, solasaldi interesgarri bat izan dugu berarekin.

Konta iezazkiguk munduan zehar egin dituan pausoak, milioika pauso horiek.

Mendian

Beti izan diat gustuko kirola egitea, eta hor kokatuko nikek mendi tontorrek igotzea, bizikleta, korrika egitea, eskiatzea, eta abar.

Baina denbora gehiena eman zioat mendiari. Hasieran bertako mendiak, Aralar, Urbia, Aizkorri, eta gero etorri dituk urrutia-goko mendiak. Denok pasa gaituk prozesu beretik. Aurrena joaten baiz Pirinioetara, eta behin eta berriro bertako 3.000 metrotik gorako tontorrek igotzen dituanean, 4.000 metrotik gora-



koez pentsatzen orduan hasten baiz; eta joaten baiz Alpeetara. Gero 5.000 metrotik gorakoez, eta joaten baiz bego Ameriketako Andeetako mendikatera. Hortik aurrera tokatzen zaik Himalaya mendikatera joatea, baina ni hor geratu nauk, Errusiako Kaukaso mendikatetik ez nauk pasa. Kontu bitxia Kaukasokoa eta mendizaleon gero eta altuera handiagoko tontorren bila joateko joera azaltzeko balio duena: Sobiet Batasuna erori zenean, Errusia Europako lurralde bat gehiago bezala onartua izan huen. Horrek ze ondorio ekarri zian mendizaleontzat? Bat oso garrantzi handikoa: Europako mendi garaiena ez zela Alpeetako Mont Blanc, 4.800 metrokoa, Errusiako Kaukasoko Elbrus mendia baizik, 5.400 metrokoa, eta tontorren bilduman Europako garaiena eduki nahi zuen mendizaleak, erremediorik gabe, Elbruserako bidea hartu behar izan zian.

Donejakue bidea

Donejakue bidea aspalditik nian agendan, Bi gauza nituen argi: bizi naizen herritik irtengo nintzela, Alegitik alegia, eta baita itzulera ere oinezkoa izango zela. Urte sasoiak aukeratze-koan, erabaki nuen neguan bideari ekitea.

Beste kontu bat ere argi neukan: erromes azalean sartzen saiatuko nintzela; ez nintzela turista moduan joango.

Horretarako denbora behar. Eta noiz iritsi zait aukera? Ba lanbidea amaitu eta pentsiodun biburtu naizenean. Joan den urtean, 2010an Jakobeo urtea izanik, iruditu zitzaidan urte egokia zela aspaldiko amets hori betetzeko.

Erregeenak pasa eta hor irten nauk bizi naizen Alegi herri bertatik. Alegi, Beasain, Segura, Zegama, eta hemen zebarkatu behar izan nian Aizkorri mendia San Adrian tuneletik, elurretan, Agurain herrira Araban iristeko. Gero Gasteizera, Haro–Errioxan– eta Santo Domingo de la Calzada, non ia sartu ninduan Orreagatik datorren eta Frantziar bidea bezala ezagutzen den erromes bidean. Iritsi Konpostelara, Santiagori bisitatxoa

egin eta hor ekin zioat itzulerari berriro oinez. Bi hilabete barru etxean ninduan. Guztira 1.500 km gutxi gorabehera.

Etxera itzultzerakoan konturatu ninduan bideak asebate egin ninduela.

“Hala ere, noizbait, egin duk zerbait txukun eta pulamentuz”, esan nioan neure buruari.

Erroma-Santiago

Hartan, basita nengoan, lagun bat tarteko, harreman apur bat izaten EITBko sortzaile eta urtetan arduraduna izan den Jose Maria Otermin amezketarrarekin, nork halako batean botatzen didan amua:

“Angel, asmoa diat Erromara joan eta handik erromes etorri Santiagora”. Baita egun asko pasa baino lehen nik irentsi ere: “Ondo iruditzen bazaik, nik lagunduko diat”.

Esan eta egin. Joan den urtean bertan, irailean, hegazkina hartu eta hor gindoazen Erromara. Eta hilaren 15ean San Pedro plazatik Santiagorantz abiatu gintuan. Hiru lagun abiatu gintuan. Amezketarra bata, alegitarra ni eta hirugarrena Erroman gure asmo berberekin azaldu zen madrildarra.

Amezketarra, aurrez esanda bezala zatika egitea beste aukerarik ez zuela, familia eta konpromisoak tarteko, hilabete inguru ibili ondoren, etxerako bidea hartu eta hor utzi gaitu Italia eta Frantziako mugan. Handik gutxira, madrildarrak istri-pua izan eta bera ere hor zihoak etxera. Bakarrrik jarraitu eta abenduaren 25ean, Eguberri egunean, Santiagoko katedralean ninduan. 2.600 kilometro eta 100 egun.

Canterbury-Erroma

Erroma-Santiago amaitu nuenerako, arratxo bat banekar-kian barruan. Erroma inguruan eta aterpe batean, topo egin genian erromes zetorren emakume batekin, italiarra bera. Gu



Santiagora gentozen bezala, bera Erromarantz. Azaldu ziguken zertan ari zen. Eta lehenengo aldiz entzun nian Via Francigena. Eta azalpenak eman zizkiguken zertan datzan bide hori. Bideak hasiera dik Ingalaterrako Canterbury hirian eta bukaera Erromako San Pedro basilikan. Aspaldikoa duk. Garai batean Ingalaterrako elizgizonek beren erromarako joan-etorriak egiteko erabiltzen ziaten. Eta batzuek idatzita bideko nondik norakoak utzi zituztelako jakin ahal izan diagu gutxi gorabehera nondik igarotzen zen bide hori. Adibidea, Sigericorena. Canterbury elizako artzapezpiku izendaturik, Erromara etorri huan Aita Santuaren eskuetatik izendapen hori hartzera, 990gn urtean hain zuzen. Itzuleran, zebaztasun handiz nondik igaro zen, non ostatua hartu, bideko herriak, ibaiak, eta abar idazten joan huan. Bidea Ingalaterrako eliza Erromatik banandu zenean gaur egun arte abaztuta geratu huan, non berriro indartu den –gehien bat italiar jendearen lanari esker–. Sigericoren Idazlan hori oinarritzat hartuta, hor zegok gaur egun Via Francigena izenarekin ezagutzen den erromes bidea, hain zuzen Canterburyko Tomas Moro deunarena eta Erromako Pedro deunaren hilobiak lotzeko helburuarekin. Ingalaterran hasi, Frantzia iparraldetik zeharkatu, Suitzan sartu, Italiara pasa eta Erroman bukatzen dena.

Nik 75 egun eman dizkiat bidea egiten. Guztira 2.000 kilometro, gutxi gorabehera. Canterburyn hasi abuztuko 10ean, eta Erroman amaitu urriaren 23an.

Kontatu ezak zehatzago nola egin dituan erromeri eta pelegrinazio horiek. Eta zergatik erromeri kate hori lotu?

Bi baldintza betetzen saiatu nauk, erromes eran bidea egin nabi izan ezkerero niretzat, ezin bestekoak direnak: bata, egunero bidera irten; bestea, trenak eta autobusak abaztu, beti oinez. Ez duk erraza. Egun guztiak ez dituk berdinak: batzuetan nekatuta hago, bestetan motibazio faltan, gorputzak atsedena

eskatzen dik, burrengoan hiri handi bat zebarkatu behar duk eta ez zaik atsegin bere kaleetatik joatea (albotik pasatzen diren autobusei begira gelditzen haiz). Gero eguraldi kontuak, batik bat euria, erromesen etsairik handiena. Nik ezin izango diat esan bi baldintza horiei ehunetik ebunean butsik egin ez diedanik, baina oro har baldintza horien barruan nire erromesaldiak burutzea lortu dudala uste diat.

Nondik erromesaldietarako zaletasun hau?

Zaletasuna berria duk, orain arte ez nian inoiz peregrinatu. Baina pasa den urtean urte Jakobeo izanda, lan kontuak amaituta, eta beti hor egon delako agendan egokiera on baten zain, hor erabaki nuen Donejakue bidea egitea. Gero Donejakue bidea egiteak sortarazi zidan halako ikuspuntu berria, ni-



re ibilbideak peregrino erara egitekoa. Ikuspuntu hori sendotu egin zitzaian Erromatik Santiagorako bidea egin nuenean. Nonbaiten esanda utzi diat Donejakue bideak asebate egin ninduela. Hiru erromesaldiak erreskadan etorri dituk. Batak bestea ekarri dik. Lehen Donejakue bidea, honek ekarri zian Erroma-Santiagokoa, eta honek Canterbury-Eromakoa. Behin lehena eginda, zalantzarik ez nian izan beste bi erromesaldietan sartzeko orduan.

Zergatik hainbeste ibili?

Beti izan diat gustuko ibiltze hori. Denok zaukagu lanetik kanpoko gure denbora librea zerbaitekin betetzeko beharra: hik, adibidez, marraztu egiten duk eta arteari ematen dizkiok ordu asko, besteak irakurri, bestea joango duk tabernara, bestea egongo duk telebista aurrean. Nire kasuan aspalditik diat ibiltzeko joera hori. Orain arte belaunak ondo erantzun zidatek, honaino arazorik gabe iristea lortu diat. Orain pentsatzen jartzen nauk zerk bultzatzen ninduen ibili behar horretara, eta beti arrazoi berberera iristen nauk: lana, lantokiko eguneroko lan hori, hor gakoa. Garai gogorretan egokitu zaidak lan egitea, eta izan ditudan lanpostuengatik, orduko arazo sozial eta politikoen zurrumbilo barruan ibili behar izan diat. Hori nabikoa ez eta ni (eta baita nire garaikoak ere) garai berrietara egokitu behar izan diagu, lan egiteko sistema berrietara. Kalkulagailurik ez izatetik oraingo ordenagailuetara. Esaten ziguken langileak beti birziklatze prozesuan egon behar zuela, eta horrek eramaten hinduan hire lan eguna amaitu ondoren ikastaroak egitera. Ikusten nian neure burua oso presionatuta, eta beharbada nire ibiltzeko joera hori izan huan presiotik ihes egiteko bide bat. Azkenean iritsi ninduan irakurle izatetik ezin liburu bat eskuetan hartzera, edo, abalegin bat eginda hasten banintzen libururen bat irakurtzen, ezin bukatzera. Ibili, beste pentsamendurik



ez; ibili astean zehar, asteburuetan, oporretan, nire egun libre guztietan...

...agian kilometroz kilometro, orriz orri mundu zabaleko liburua irakurriz. Baina, Zeren bila?

Galdera ona. Etzekiat zerbaiten bila edo ibeska. Ihesi –lehen esan bezala– laneko munduko presiotik. Hau izan liteke topiko bat, baina garai gogorretan egokitu zaidak lan egitea.

Eta bide eta errepede eta mendi horietan zer aurkitu duk?

Gehienbat lortu diat denbora pasatzea eta toki askotara iristea. Hortik aparte, ezer gebiago lortu ote dudan? Ez negok ziur, baina gehienetan bakarrik ibili naizelako, agian, burua lasaitu, barrenak aztoratutako garaian gauzak ondo pentsatu, bizimoduari buruzko gogoetak eten gabe buruan hausnartu... etzekiat onerako edo txarrerako.

Gero, kanpora joaten baizenean, berehala egiten duk konparaketa bangoa eta hemengoaren artean. Horretarako aurrez aurre jartzen dituk klima, tokia, paisaia, janariak, hire zaletasunak, eta abar; eta ni beti ondorio berbera iritsi nauk, nahiz eta aitortu oso erlatiboa izan daitekeela: munduko tokirik hoberenean bizi nauk.

Zer pasatzen da hainbeste denboran oinez dabilen ibiltari baten burutik?

Ez duk komeni erromesaldi batera joatea, baldin eta barruan indartsu eragiten diken probleman bat badarabilkik. Lehenengo aldiz Santiagora joan nintzenean, ezagutu nian madrildar bat emazteagandik banandu berria. Uste nian erotuko zela, bera eta ingurukoak.

Beste gizonezko bat berriz bere emazteagandik banandu –edo askatu– zelako nolabait “ospatzen” ari huan.

Nire kasuan, peregrinatzeari ekin diodanean, saiatu nauk datorrenari arreta ipintzen, zer datorkidan, nola jokatatu, oreka bat lortu eta bakean eta lasaitasunean ekin datozen urteei, nola aurpegi eman gero eta hurbilago den bizitzaren amaierari. Baina hori duk hik nahi duana, eta gertatzen dena berriz oso bestelakoa. Behin eta berriro buruak atzera begiratzen dik, etengabe galdetzen dik zer egin duan hire bizitzarekin, baita ere muturren aurrean jarri gustura abaztuko bituzkeen hire bizimoduko pasarteak. Gogorapen

horiek ederki kolpatzen haute eta zenbat eta gehiago saiatu saibesten, orduan eta indartsuago gogoratzen dituk, hire lagun ezin bestekoak bidean izango direla onartu arte. Psikologikoki oso indartsu egon behar haiz, bidea utzi eta etxera ez itzultzeko.

Zein bereizitasun aurkitu dituk hire bidaia horietan?

Mendiko bizipenak aparte utzirik, lehen aipatu dudan bezala, erabaki nianean peregrinatzea, garbi nian saiatuko nintzela peregrino bezala bidea egiten, ez turista moduan. Mendian ibili edo peregrinatu, hortik zetozkek bereizitasun nabarmenenak. Mendira joaten haiz helburu batzuekin, tontorrek egin, tokiak ezagutu, kirola egin. Ez diat esango bidea egiteak peregrino erara kiroletik ezer ez duenik. Baina hasieratik garbi nian helburua ez zela hori, baratago joan behar nuela. Eta ondorioz, saiatu nauk neure ibilaldiei zerbaiten kutsu espiritualala edo erlijiosoa ematen. Donejakue bidea egin nianean konturatu ninduan bideak bere estetika berezi bat bazuela: elizak, katedralak, hiriak, gazteluak, monasterioak, bidearen sorrera bera, bide inguruan sortu den giroa. Horiek denak tira egiten ditek hire barrengo erlijioarekiko sentimenduetatik. Eta ni eramaten utzi nauk. Noraino? Komentu bateko mojatxo batek galdetu zidan ea fedearekin ari al nintzen bidea egiten. Eta nire erantzuna: fede kontuak ez direla bate-re errazak.

Nola ikusten du jendeak erromes edo pelegrina?

Espainiako lurraldeetan obizkoa duk erromesak Donejakue bidea egiten ikustea, normaltzat hartzen den zerbait dela esango nitek. Europa aldean ez duk hain obizkoa. Baina iruditzen zaidak, Donejakue bidearen antzera erromesaldiak bultzatu eta indartzeko sentimendu bat garatzen eta handitzen ari dela. Normalean kristautasunaren inguruan mugit

tzen den jende bat duk, erromesaldiak bultzatuz kristautasunari bultzada ematen diotela ikusten dutenak. Frantzian hamar milioi musulman egon behar ditek, behin bati entzun nionez. Eta horrek kezka sortzen ote duen kristau jenderen artean. Hara adibide bat Frantzia aldean erromesaldiei nolako garrantzia eman nahi dioten adierazten duena: Orain dela gutxi Sarkozy jaunak agerraldi bat egina dik Frantziako Veze-lay hirian –historikoki hiri garrantzitsua Frantziako Donejakue bidean–, eta bertan Frantziako kristau izaeraren alde defentsa sutua egin ere, izaera hori erromesaldiekin lotuz. Horrek denak erakusten dik Europa aldean badagoela oraindik pelegrinekiko halako arreta berezia, zerbait zaindu beharrekoa balitz bezala, desagertzea inork nahi ez duena.

Zer nolako harrera izan duk hire bidaietako toki diferenteetan?

Denetatikan eta hori banekian irten aurretik. Donejakue bidean adibidez arazorik ez zegok, urte askotako antolaketa antzematen duk eta gauero aurkitzen duk toki eroso bat atseden hartzeko, patrika gehiegi astindu gabe.

Aldiz, Erromatik Santiagorako bidean itsasalde urdina bezala ezaguna den Frantziako lurraldea zeharkatzen duk, eta hor orain arte antolaketa gutxi egon arren, sortzen ari dituk Santiagora doazen pelegrinetaz arduratzen diren elkarteak. Nik horietako elkarte batzuekin topo egin nian, eta asko erraztu zidaten lurralde horretako zeharkaldia.

Canterburytik Erromarako bidean zati ezberdinak aurkitu nizkian. Italia, oso ondo hornituta aterpe erosoekin, bertako arduradunak erromesekin obituta, bideak ondo markatuta.

Gustura erortzen ninduen komentuetan, bai fraide eta bai mojenetan. Horietan oraindik irauten dik erdi aroko peregrino haren irudia, alegia Europako bide zabarretatik oinez Erromara edo Santiagora, urtetako usadio zabarra jarraituz, berrialde



ezberdinetako kultura arteko zubi egiten zuena. Parrokiko aterpeetan kontu handiz ibili behar izan nian, arduraduna borondatezko herriko norbait zenean, batik bat, naiz eta batzuetan



arazorik ez izan. Susmoa geratu zaidak, zenbait parroketako apaizak erromesa pikareskarekin lotzen ote duten.

Ze harreman izan dituk bideetan aurkitu dituan lagunekin?

Harreman mugatua, bizkuntza dela tarteko, batik bat Frantzia, hobeto Italian. Arazo hori dela eta, askotan nahiago bakarririk ibiltzea beste pelegirinekin baino. Badiat asmoa Frantziara itzultzeko, baldin eta lortzen badut nire frantses ezaguera hobetzea. Donejakue bideari dagokionez, Frantzia oso aberatsa duk. Kontuan hartu Europatik zetorren jendetza, Frantziako hiri jakin batzuetan elkartzen zela, multzo egin eta erromesaldiari hasiera emateko. Hara hor Le Puy en Velay, Vazelay, Arles... Hi-

ri horietatik Pirinioak bitartean hiriak, monasterioak, katedralak, elizak, aterpeak, eta abar aurkitzen dituk, orain dela mila urte erromesak babesteko edo beraien joan-etorriei etekinak ateratzeko eraikitakoak, kasu askotan eraikin ikusgarriak, kondairaz beteak, garai haiek, sinesmena eta kultura ulertzeko lagungarri. Nik gozatu egiten diat horiek denak ikustean.

Italian izan diat aukera beste peregrinoekin batera bideko zati batzuk egiteko. Aste osoa egin nian hiru italiarrekin. Haiek izan bituen bideko momentu hoberenak. Ondorio bat garbi atera nian: hemendik kanpo euskaldunok oso ezagunak garela, gure azken historia dakitela guk bezain ondo.

Pentsatzen diat anekdota eta bitxikeria ugari bizi izango hituala

Nola ez ba. Kontuan izan nire lehenengo erromesaldia Santiagora ia bi hilabetekoa izan zela, bigarrenkoa 100 egun eta oraingoa 75 egun. Egun asko dituk etxetik kanpo, egunero toki ezberdinetan, egunero ostatuz aldatuz, euria, elurra, beroa, izotza, denetik izan diat, normala denez.

Anekdotatxo asko, baina, beharbada, garrantzia niretzat bakarrik dutenak. Aipatzeagatik, Frantziako lehenengo egunean gertatu zitzaidana: Normandiako hondartzatik barrena bideari ekin nioan, nire GPSak agintzen zidan bezala, baina ni harrituta itsasoko ura gero eta gertuago nuelako, eta gainera itsasoa nabiko harro. Beldurra ere bai irentsiko ote ninduten olatuek... GPSko bidea itsasbeheran markatua izango zela konturatu nintzen arte, eta ni itsasgoran nindoala. Jarraitu banu, auskalo orain non nintzan.

Edo aitona haren irrifarra, bere etxean ostatua hartu nuelarik eta galdetu zidanean zer edan nahi nuen, ura, edo kafea, edo tea. Eta nik esan nionean: “Le pelerin boire win”.

Beste batek, bera ere pelegin ibilitakoa, eta nire restauranteko kontua ordainduta utzi zuenekoa.

Biarnoko eliza batean berriz, apaizak, euskal zalea izan eta ni euskalduna nintzela jakinda, mezetan Aita Gurea frantzesez errazatu eta gero elkarrekin euskaraz errezzatu genueneko.

Ze ondorio gelditu zaik ibilaldi hauen ondoren?

Etxera etorritakoan, esaten zioat neure buruari hortik ibiltze hori amaitu dela, baina denbora gutxi irauten dik horrek. Aitortu behar diat ez nauela aspertzen, gustuko diat bide zahar horiek zapaltzea, erromesaldiak berezkoa duen giro horretan murgildu eta nire aurretik mila urtetan ibili diren erromesekin bat egitea, bideko eraikinen harriak esaten dutena entzuten saiatzea. Jarraitzeko asmoa diat, nabiz eta neure buruarekin borrokatu beharra izan iraganetik datozkidan kolpeak leuntzeko, halako batean datorkidana argituko didan zerbait aurkitzeko itxaropenarekin.

Eta bere hitzaren jabe, elkarrizketa honek argia ikusten duenean, Anjel Mari, berriz ere, Donejakue bidean pausoka dugu. Bere bizibideko peleginazioan ibilaldi luze eta oparoa opa diogu.

Bueltara arte, Anjel Mari.

Juan Mari Arrizabalaga